

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 184/2020 Erabakia, apirilaren 21ekoa. Onespena ematea Estatistikako Institutu Nazionalak eta Arabako Foru Aldundiak erakunde horren errolda basera sartzeari buruzko hitzarmena sinatzeari

Arabako Foru Ogasunak (hemendik aurrera, AFO) beharrezkoa du Estatistika Institutu Nazionalak koordinatzen duen errolda basetik hartutako datu pertsonal eguneratuak edukitzea, berari esleiturik dauden zerga eginkizunak eraginkortasunez betetzeko; besteak beste, informazio jarduketetan eta zergapekoak tartean diren zerga prozeduretan haiei jakinarazpenak egiteko haren kontu utzitako zereginak bete ahal izateko, bai eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra) 48. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izateko ere, zergapekoen zerga egoitza kudeatzean, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra) 113.2.m artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baitira zergadunen zentsua eta horren inguruko bete-beharrak, 3. eta 10. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra) 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, "Agintariek (era guztietakoek), Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen eta toki-entitateen organoen titularrek, organismo autonomoek eta enpresa-erakunde publikoek, lanbide ganbarek eta korporazioek, elkargoek eta elkarteek, gizarte aurreikuspenarako mutualitateek, gainerako erakunde publikoek (are Gizarte Segurantzaren kudeatzaileek ere) eta, oro har, eginkizun publikoak dituzten guztiek Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkiote xedapen orokorren bidez edo banakako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesa eman behar dizkiete euren eginkizunak bete ditzaten."

Era berean, Arabako otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak 91. artikuluko 5. puntuan xedatzen duen bezala: "Aurreko artikuluan, artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan edo legezko beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko ez da behar ukiturikoen baimenik."

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak erroldako datuen lagapena arautzen du 16.3 artikuluan bidez, zeinaren arabera: "Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baime-rik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrak, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik."

Gainera, udalen errolda, datu pertsonalak dauzkan administrazio erregistro bat denez gero, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren pean (EB 2016/679 Erregelamendua, hemendik aurrera DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren pean dago.

DBEOren 6.1.e) artikuluan ondorioz, datu pertsonalen tratamendua zilegi izango da beharrezkoa baldin bada interes publikorako edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak egikaritzu egin beharrezko mandatu bat betetzeko, eta lege maila duen arau batean ezarrita egon behar da tratamendua egiteko oinarria, 3/2018 Lege Organikoaren 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera –kasu honetarako, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra) 90. eta 91. artikulua lirateke.

Kontuan hartu da Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.7) artikulua xedatutakoa, zeinak Foru Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen baitio, bere betearazpen eginkizuna egikaritzuz, erabakitzeko lankidetzaz hitzarmenak sinatzea Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin, beste lurralde historiko, autonomia erkidego, probintzia batzuekin edo beste administrazio publiko batzuekin.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onesten da sinatzea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Estatistika Institutu Nazionalaren arteko hitzarmena, Estatistika Institutu Nazionalaren errolda baserako sarbidea izateko, erabaki honi erantsita doana.

Bigarrena. Ahalmena ematea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari hitzarmena bera eta hitzarmena betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 21a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILAREN
ETA ESTADISTIKA INSTITUTU NAZIONALAREN ARTEKO HITZARMENA, ESTADISTIKA
INSTITUTU NAZIONALAREN ERROLDA BASERAKO SARBIDEA IZATEKO

XXXXXX(e) n,(e) an

BILDU DIRA

Alde batetik, Itziar Gonzalo de Zuazo andrea, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren burua, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenagatik.

Eta bestetik, Juan Manuel Rodríguez Poo jauna, Estadistika Institutu Nazionalaren lehen-dakaria, urriaren 22ko 1325/2018 Errege Dekretuaren bidez izendatua, institutu horren izenean eta ordezkarietan, maiatzaren 11ko 508/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estadistika Institutu Nazionalaren Estatutuko 5.2 a) artikulua ematen dion lege ahalmena duelarik, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) 48.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Alderdiek hitzarmen hau izenpetzeko legezko ahalmena aitortzen diote elkarri eta, helburu horrekin, hau

ADIERAZTEN DUTE

I

Euskadiko Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsia), Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ekonomia itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia), Batzar Nagusien foru arauak eta ordenamendu juridiko orokorrak ezartzen duten eskumen esparruari lotuz, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zergen eta zuzenbide publikoko diru sarreraren kudeaketa, ikuskatze eta bilketarekin lotura duten eskumenak egikaritzen ditu, zeinen titularra Arabako Foru Aldundia baita. Arabako Foru Ogasunari dagokio (hemendik aurrera, AFO) behar diren administrazio jarduketak egitea Arabako Foru Aldundiaren zerga sistema izaera orokorrean eta eraginkortasunez aplikatu dakien zergapeko guztiei, zeinak ez baitira ezinbestean lurralde historikoko egoiliarak.

AFOk bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa (horretarako, Estatuaren ogasun publikoak aitorturik dauzkan ahalmen eta eskumen berberak dauzka) ez da izan behar haren lurraldean ohiko bizilekua duten pertsonen buruzkoa bakarrik, haren eskumenak lurralde horretatik harantzago hedatzen baitira.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ekonomia itunaren 1. Hiru artikulua honela dio: "Lurralde historikoen zerga itunduak kudeatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzeko, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuaren ogasun publikoak aitorturik dauzkan ahalmen eta eskumen berberak edukiko dituzte".

Beste alde batetik, 2005eko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra), 5.3 artikuluan, honela dio: "Foru Aldundiak Estatuaren lurralde guztian egikaritutako zergak aplikatzearen eta zehapenak ezartzearen arloko bere eskumenak, ekonomia itunean ezarritakoari lotuz".

Ondorioz, AFOren eskumen eremua, bere zerga eginkizunak egikaritzean, zerga egoitza edo ohiko bizilekua haren lurraldetik kanpoan duten zergapekoengana heda daiteke, ekonomia itunean hala xedatzen den kasuetan, hartan araututako lotura puntuak kontuan edukiz.

Besteak beste:

a) Zenbait kasutan, ohiko bizilekua erabakigarritzat jotzen du zerga ordainarazteko eskumena zein zerga administrazioarena den zehazteko. Hala gertatzen da pertsona fisikoaren errentaren

gaineko zergarekin (6. Bat artikulua). Baina, zerga horretan ere, beharrezkoa da, zenbait kasutan, Arabako Lurralde Historikotik kanpoko ohiko bizilekua non den jakitea: subjektu pasiboaren urte naturalean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiagoz dagoen lurraldea zehazteko (43. artikulua), edo familia unitate bateko kide diren zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan daukaten eta baterako zerga ordainketa aukeratzen duten kasuetan (6. Bi artikulua).

b) Beste kasu batzuetan, ordainarazpena zein zerga administrazioari dagokion zehazteko kontuan hartutako lotura puntua ohiko bizilekuaz bestelakoa da, halatan non, lotura puntu hori betetzen baldin bada, AFO eskuduna izango den, berdin du zergapekoaren zerga egoitza haren lurraldean egon edo ez, honako hauetan, besteak beste:

b.1) Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga: «mortis causa» eskuratzeetan eta bizitza aseguruaren onuradunek heriotza gertatzekotan jasotzen dituzten diru kopuruetan, kausatzailearen ohiko bizilekua hartzen da kontuan, ez subjektu pasiboarena (25. Bat.a artikulua), eta ondasun higiezinaren eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan erabakigarria da ondasunak dauden lekua (25. Bat.b artikulua).

b.2) Lanaren etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak: AFOk eskatuko ditu baldin eta lanak edo zerbitzuak Araban egiten badira (7. Bat.a artikulua) edo, administrazio kontseiluarekin, haien ordez diharduten batzarretako edo beste ordezkari organo batzuetako kidea edo administratzailea izateagatik hartzen diren ordainsariei dagokienez, entitate ordaintzaileak (ez ordainsariaren hartzaileak) bere zerga egoitza Araban badauka (7. Bat.c artikulua).

b.3) AFO eskuduna bada atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, eskuduna izango da, halaber, egindako atxikipenen eta konturako sarreraren laburpenak barnean dituzten aitorpenak jasotzeko (46. artikulua).

b.4) Balio erantsiaren gaineko zergari dagokienez, batez ere subjektu pasiboek diharduten lekua hartuko da kontuan (27. artikulua).

b.5) Kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga: ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketen eta errentamenduetan eta haien gaineko eskubide errealen (are berme eskubideen) eraketa eta kostu bidezko lagapenetan, AFO eskuduna izango da higiezinaren haren lurraldean baldin badaude (31. artikulua).

Estatistika Institutu Nazionala (hemendik aurrera, INE) erakunde autonomo bat da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84.1.a) artikuluan aipatzen direnetakoa, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioari eratzekoa, eta Estatistika Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legeak haren kontu utzitako eginkizunen artean, Estatistika Plan Nazionalak esleitzen dizkion eragiketa estatistikoak gauzatzeko eginkizunak ditu, bai eta espreski haren kontu utzitako beste edozein estatistika jardueraren ere. Eta, udalen biztanle erroldaz den bezainbatean, toki araubidearen legerian ezarritako INEren eta toki erakundearen arteko harremanak ordenatzen dituzten erregela berezietara bidaltzen du.

Hala, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea) 17.3 artikuluan xedatzen du udalek INEri bidali behar dizkiotela udalen erroldetako datuak, erregelamendu bidez zehazten den moduan, udalerrir guztietako errolden koordinazioa egin ahal izateko.

II

AFOk beharrezkoa du INEkin koordinatzen dituen errolda basetik hartutako datu pertsonal eguneratuak edukitzea, berari esleiturik dauden zerga eginkizunak eraginkortasunez betetzeko; besteak beste, informazio jarduketetan eta zergapekoak tartean diren zerga prozeduretan haiei jakinarazpenak egiteko haren kontu utzitako zereginak bete ahal izateko, bai eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra) 48. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izateko ere, zergapekoen zerga egoitza kudeatzean, zerga zentsuak egin eta mantentzeko helburuaz, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra) 113.m artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 25eko

3/2011 Foru Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baitira zergadunen zentsua eta horren inguruko betebeharrak Arabako Lurralde Historikoan, 3. eta 10. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra) 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, "Agintariak (era guztietakoak), Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen eta toki-entitateen organoen titularrek, organismo autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak, lanbide ganbarek eta korporazioak, elkargoak eta elkarteak, gizarte aurreikuspenarako mutualitateak, gainerako erakunde publikoak (are Gizarte Segurantzaren kudeatzaileak ere) eta, oro har, eginkizun publikoak dituzten guztiek Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkiote xedapen orokorren bidez edo banakako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak, eta berari eta beraren agenteei laguntza, sorospena eta babesa eman behar dizkiete euren eginkizunak bete ditzaten."

Era berean, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra) 91. artikuluko 5. puntuan xedatzen duen bezala: "Aurreko artikuluan, artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan edo legezko beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko ez da behar ukiturikoen baimenik."

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak erroldako datuen lagapena arautzen du 16.3 artikuluan bidez, zeinaren arabera: "Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baime-rik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari da- gokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik"

Gainera, udalen errolda, datu pertsonalak dauzkan administrazio erregistro bat denez gero, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren pean (EB 2016/679 Erregelamendua, hemendik aurrera DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren pean dago.

DBEOren 6.1.e) artikuluan ondorioz, datu pertsonalen tratamendua zilegi izango da beharrezkoa baldin bada interes publikorako edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak egikaritzu egin beharrezko mandatu bat betetzeko, eta lege maila duen arau batean ezarrita egon behar da tratamendua egiteko oinarria, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera –kasu honetarako, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren (Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorren) 90. eta 91. artikulua- k lirateke.

Hala ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.3 artikuluan interpretazioari dagokionez, Datuak Babesteko Bulegoaren arabera, laga daitezkeen erroldako datuak bakar-bakarrik bizilekuari buruzkoak dira eta, gainera, horretarako administrazio publiko eskatzaileak eman behar du bere eskumenak egikaritzeko bizilekua edo helbidea behar duen pertsonen zerrenda, DBEOren 5.1.c artikuluan ezarritako datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorritik, eta hori INEk eskaintzen duen webeko kontsulta zerbitzuaren erabilera betetzen da. Dena dela, AFOk, horrez gainera, fitxategi bat behar du bere lurralde historikoan erroldatuta dauden guztiak dauzkana, zerga zentsuak egin eta mantentzeko – Zergen Foru Arau Orokorra AFOri aitortutako eskumena, ahalbideratzen duena kontrol lanak egitea, baita identifikatzea eta jakinaraztea ere informazio jarduketetan eta zergapekoak tartean diren zerga prozeduretan.

Erroldako informazioa funtsezkoa da zerga zentsuak behar den bezala mantentzeko, ahalbideratzen baitu ondorioz herritarren alta, dagozkien helbide datuekin eta jaiotegunekin, dakarten balidatze prozesuak egitea; baita ere, AFO lehendik erroldatuta dauden herritarren jaioteguna eta helbide eguneratuak eranstea. Hortaz, erroldako informazioak ahalbideratzen du zerga zentsuetan ageri diren datuak kontrastatzea eta formazko zentsu betebeharren ez-betetze posibleak detektatzea, eta horrela AFO zergak aplikatzeko prozedura guztiak elikatzen dituzten zentsuen kalitate maila altua bermatzen du.

Zerga zentsu horiek ezinbestekoak dira AFok esleiturik dauzkan eskumenak egikaritzeko, eta bizilekuaren eta jaiotegunaren inguruko datuak garrantzizko datuak dira. Hala esan daiteke ekonomia itunaren lotura puntuak aplikatuz AForen eskumen eremuaren barruan dauden pertsona fisiko guztiez.

Datu horiek zerga aldetik duten garrantzia nabaria da, haien helburua zerga sistemaren aplikazioa baita: beharrezkoak dira zerga sistema aplikatzeko, eta helburu horrekin besterik ez. Horrez gainera, ez dago helburua erdiesteko bide neurritsuagorik, ez baitago pareko fidagarritasuna duen tresna alternatiborik. Eta proportziozko neurri bat da, interes orokorra konstituzioak babesten duen ondasun batean mamitzen denez gero, gastu publikoei aurre egiteko ekarpen egokia bermatzean, alegia.

Baita ere, kontuan eduki behar da honako hau, Toki Erakundeetako Biztanle eta Mugei buruzko Arautegiaren 83.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia, abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak eman dion idazketan): "Estatistika Institutu Nazionalaren eskuetan dauden erroldetako datuak ezingo dira erabili erroldatze ziurtagiriak edo agiriak jaulkitzeko".

III

Horren ondorioz, lege aldetik bidezkoa denez, eta kontuan edukiz administrazio publikoen arteko harremanak gidatu behar dituen elkarrekiko lankidetzaren printzipioa, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) 141.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, bi aldeek ordezkariak uste dute oso onuragarria litzatekeela INEk erroldako informazioa AFOr aldizka lagatzeko sistema egonkor bat ituntzea hura zerga helburuekin erabiltzeko, lagapena indarrean den lege esparruan ahalik eta eraginkortasun handienaz egiteko moduan.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Estatistika Institutu Nazionalak adostu dute hitzarmen hau egitea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren esparru egonkor bat ezartzea INEk kudeatzen duen errolda basetik hartuta AFOr lagako zaion informazioaren edukiri eta lagapen hori arautuko duten baldintza eta prozedurei buruz, dela web zerbitzu bat ezarriz, AForen organoei ahalbideratuko diena aipatutako basera sartzeko bana-banako kontsulten bidez, bere eskumenak egikaritzean menpean dituen zergapekoen bizilekuaren datua lortzeko, haien egoitza lurralde historikotik kanpoan izan baitaiteke, dela seihilekoan behin fixategi bat eskuratuz, dagokion lurralde historikoko INEren errolda basean inskribatuta dauden guztien gaineko informazioa daukana. Bi prozedura horietako edozeinez INEtik egindako eta AFok jasotako informazio lagapenaren helburu bakarra izango da hura zerga sistema forala egitez aplikatzeko erabiltzea.

Bigarrena. Erroldako base datua kontsultatzeko web zerbitzuaren ezaugarriak.

1. Hitzarmen honetan ezarritako lankidetzaren esparruan, INEk AForen esku ipiniko du erroldako base datua kontsultatzeko web zerbitzu bat, haren erabiltzaile baimenduak hartara sar daitezten.

2. Kontsultak banan-banan egingo dira, prozedura bakoitzerako. Beharrezkoa izango da, kontsulta bakoitzean, haren identifikazio zenbakia eta erroldako datu basera sartzeko arrazoiak adieraztea, horretarako "Espedientea" eta "Helburua" eremuak erabiliz. Eremu horiek ahalbideratuko dute kontrol lanak egitea eta espedienteak lokalizatzea datuen lagapenari buruz egiten diren ikuskatzeetan.

3. Kontsulta egiteko, hauek dira erabil daitezkeen eremuak: NANA (edo, atzerritarrentzat, haren ordezkari zenbakia), abizenak, izena eta jaioteguna. Delako pertsona inskribatuta ageri den helbidea itzuliko du, aurkitutako biztanlearen datuekin (IFZ, AIZ edo pasaporteak, izena eta

abizenak), baldin eta bere identifikazio datuak sartu diren bilaketa datuekin bat datozen inskripzio bakarria badago basean. Sartu diren bilaketa irizpideekin bat datorren inskripziorik ez badago, edo bat baino gehiago badago, hala adieraziko da berariazko mezuen bidez.

Hirugarrena. Web zerbitzuaren bidez INEren erroldako datu basera sartzeko betebeharrak.

1. Erroldako datu basea kontsultatzeko web zerbitzuaren erabiltzaileen kudeaketa eta har-tarako sarreraren kontrola, INEk eta AFOk itunduko dituzten arau teknikoaren arabera egingo dira. INEk AFOren esku uzten du erabiltzaileen kudeaketa. AFOk jakinarazi beharko dio INEri, honek baimena eman dezan, prozeduraren izena, baita ere zer aplikaziotatik egingo den sarrera eta zer IP helbidetatik egingo den web zerbitzurako deia, kontrol egokia egin ahal izan dadin INEren aplikaziotik.

2. INEk kudeatzen duen erroldako datu basera sartzea, ezin daiteke egin AFOren zerga sistema aplikatzeko eginkizunak betetzeko beharrean oinarritutako eskaera baten kariatzetik. Eskaera horretan, espediente zenbaki bat eskatuko da, zeina formulario zenbakia bera (halakorik izanez gero) edo espedienteari esleitutako erregistro zenbakia bera izanzen baita, delako datu kontsultarako benetako arrazoia dagoela frogatzeko.

3. EB 2016/679 Erregelamenduaren 5.1 b) artikuluan eta foru araudian ezarritakoarekin bat etorriz, haien babesean egiten baita lagapen hau, aurreko paragrafoan adierazi den helburuaz bakarrik erabil ditzake AFOk erroldako datuak, eta ezingo ditu erabili datu horiek beste xede batzuetarako.

4. INEk nabaritzen dituen irregulartasunen berri emango zaio AFOri, bidezko diren egintzak gauzatu dituzan.

5. Erroldako datu basea kontsultatzeko web zerbitzurako deia egiaztatu beharko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean eta Segurtasun Eskema Nazionalean ezarritakoaren arabera aitortutako ziurtagiri elektronikoko baten bitartez.

Laugarrena. INEren konpromisoak eta jardunak, web zerbitzuaren bidez erroldako datu basea kontsultatzeko kontuan.

1. Hitzarmen honetan ezarritako lankidetzaren esparruan, INEk konpromiso hauek hartzen ditu:

a) INEren web zerbitzuan AFO integrazteko erraztasunak ematea.

b) Erroldako datu basea kontsultatzeko AFOren eskaerei erantzuteko bide ematen duen web zerbitzua garatzea.

c) Beharrezko konexio telematikoak egitea, igorlearen sinadura egiaztatuz.

d) Zerbitzari ziurtagiriak izenpetutako XML fitxategi bat itzultzea, kontsultan itzulitako datuak dauzkana.

e) Erabiltzaile bakoitzak egindako kontsulten historia-fitxategi bat ("log") edukitzea, zeinak ahalbideratuko baitu egindako sarrerak kontrolatzea eta haien ikuskaritzak egitea.

f) Erroldako datu baserako sarreraren nabaritzen dituen irregulartasunen berri ematea AFOri, eta beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatzea. Sarreretan edo haien kontrol araubidean anomalia edo irregulartasunik somatuz gero, INEk eten edo mugatu dezake web zerbitzurako sarbidea, haiek erabat argitu edo AFOk bidezko diren neurriak hartu arte.

2. INEk, berriz, udal errolda egiteko lana kudeatzen ez duenez gero, ez du inolako erantzukizunik bereganatzen erroldako datu basean jasotako helbideak eta aurkitutako biztanlearen datuak erreallitatearekin bat ez datozenean, eta ezingo du lortzen diren datuen ziurtagiririk egin.

Bosgarrena. AFOk egin beharreko jarduketak, web zerbitzuaren bidez erroldako datu basera sartzeko kontuan.

1. Egin nahi den lankidetzaz ahalbidetzeko, honako xede hauetara bideratutako ekintzak hasiko ditu AFOk:

a) Prozedura egokia ezartzea AFOren organoek egiten dituzten sarrerak bere antolaketa egituraren barruan izapidetzeko.

b) Barne segurtasuneko arau bat edukitzea, gutxienez ere kontu hauen araudia jaso beharko duena.

1. Erabiltzaileen kudeaketaz eta sarreraren kontrol eta segurtasunaz arduratu duen organoa.

2. Pertsonal baimendua eta sartzeko baldintzak.

3. Erabiltzaileen kudeaketa.

4. INEk kudeatzen duen erroldako datu basea kontsultatzeko web zerbitzuaren erabiltzaileak eta hartarako sarrerak kontrolatzea.

5. Erabiltzaileen kudeaketa dokumentatzeko modua.

6. Erabiltzaileen sarreraren aldizkako kontrola, sarreraren arrazoiak azalduz.

7. Gorabeheren eta hartutako neurrien erregistroa.

8. Erantzukizun eta zehapen araubidea.

c) Erabiltzaileen eta sarreraren kudeaketa egitea, INEk eta AFOk elkarrekin ituntzen dituzten arau teknikoak jarraituz.

d) Erabiltzaileei aholkularitza tekniko eta informatikoa ematea.

e) Eskaera bakoitzeko datuekin XML fitxategi bat sortzea, dagokion ziurtagiriak izenpetu behar duena.

f) Hasiera batean AFOk web zerbitzua erabiltzeko alta eman dien organoen zerrenda eskuratzea INEri, taula moduan bere sistemari eransteko, adieraziko diren arauak jarraituz, bai eta hark jasaten dituen ondoz ondoko aldaketak ere, horiek egin ahala.

g) INEk egiten dituen ikuskaritzari buruz eskatzen diren dokumentazioa eskuratzea, nabaritutako irregulartasunen berri emanez AFOren organoak, eta INEk haien inguruan egiten dituen neurriak jakinaraziz.

Seigarrena. INE sortutako informazioa AFOri lagatzea fitxategi bidez.

Hitzarmen honetan ezarritako terminoetan, INEk bere ardurako informazioa eskuratuko dio AFOri, modu honetan:

Sei hilabete behin, INEren erroldako basean Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan inskribatuta dauden fitxategia, Arabako zergapekoen zentsua behar den bezala eratzeko erabiliko dena, eta ondorioak izango dituen zerga desberdinen kudeaketan, ikuskatzean eta bilketan, Arabako Foru Aldundiari esleitutako eskumenen esparruan.

INEk urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko eta uztailaren 1eko erreferentzia data duen informazioa emango du, eta fitxategiak, hurrenez hurren, otsailean eta irailean bidaliko dira.

1. eranskinean ageri den erregistro diseinuaz emango da informazioa.

Zazpigarrena. Fitxategi bidez ematen diren datuen kontrola eta segurtasuna.

1. Ematen diren datuen kontrolak eta segurtasunak jarraituko diote Administrazio Elektrokaren Eremuko Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege

Dekretuan (urriaren 23ko 951/2015 Errege Dekretuaren bidez aldatuta) eta AFOn informazio segurtasunerako politikan xedatutakoari.

2. Hitzarmen honen babespean emandako informaziora sartzeko eta haren zaintza eta erabilerarako segurtasuna kudeatzeko bere sistemaren ondoriozko ohiko kontrolak egingo ditu AFOk. Bereziki:

Kontrolak egingo dira egiaztatzeko nola zaindu eta erabiltzen dituzten jasotako datuak agintariak, funtzionarioek edo haien menpeko gainerako langileek, eta jarraipen lan horretan lortutako emaitzen berri emango zaio Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Mistoari.

Berriazko neurriak hartuko dira informazioa beste asmo batzuekin (are oharkabeen ere) erabiltzeko edo interes gatazkaren batean dauden pertsonak erabiltzeko arriskua deuseztatzen dutenak.

Aurretik esandakoaz gainera, aldeek beste egiaztatze jarduketa batzuk erabaki ditzakete, lagatuko informazioa era egokian lortzen eta erabiltzen dela eta araudiko edo hitzarmeneko baldintza aplikagarriak betetzen direla egiaztatzeko.

Zortzigarrena. Finantzaketa.

Hitzarmen honetan ezarritako jardunek ez dute ekarriko kontraprestazio ekonomikorik eta ez dute sortuko gasturik, hura izenpetzen duen ezein erakunderentzat.

Bederatzigarrena. Jarraipen, zaintza eta kontrol batzordea.

Hitzarmen honen exekuzioaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako, batzorde parekide bat sortzen da, ondoko osaera, eginkizunak eta bilera egutegia izango dituenak:

1. Osaera.

– AFOn aldetik: hiru ordezkari izango ditu, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren titularrak izendatuak.

– INEren aldetik:

- Estatistika Koordinazioaren eta Lan eta Prezio Estatistiken Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari bat.

- Errolda Unitatearen bi ordezkari.

Aholkulari moduan, beharrezkotzat jotzen den beste edozein funtzionariok ere parte hartu ahal izango du, hitz egiteko eskubidearekin.

2. Eginkizunak.

Hitzarmen hau eta aldeek bere gain hartutako konpromisoak betetzen direla jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko eginkizun orokorraz gainera, hitzarmenaren inguruan ager daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebatziko ditu batzordeak.

3. Bileren egutegia.

Jarraipen batzordea aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da, baldin eta hala gomendatzen badute aztertzeko diren gaiek edo inguruabarrek. Bilerak urrutitik egin ahal izango dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Araubide aplikagarria.

Jarraipen Batzordea, bere funtzionamenduari eta lege araubideari dagokienez, eta klausula honetan espreski ezartzen ez den guztian, urriaren 1eko 40/2015 Legeak atariko tituluaren II. kaptuluaren 3. atalean kide anitzeko organoen funtzionamenduaz xedatutakoaren pean egongo da.

Hamargarrena. Indarrean jartzea, iraupena eta luzapena.

Hitzarmen hau aldeek oniritzia emanda hobetuko da, eta hori ez da oztopo izango administrazio bakoitzaren araudiaren arabera hitzarmenaren eraginkortasunerako egin beharreko izapideak egiteko.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, eta berariaz luzatu ahal izango da beste lau urtez. Zortzi urte horiek igaro eta lankidetzarekin jarraitzea egoki ikusten bada, beste hitzarmen bat sinatu beharko da.

Hamaikagarrena. Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Sinatzailearen batek ez baditu betetzen bere gain hartutako betebeharrak, beste aldeak eska diezaioke, jakinarazpen bidez, 15 eguneko epean ez-betetze hori zuzentzeko. Errekerimendu horren berri emango zaio hitzarmena betetzen dela jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko bederatzigarren klausulan ezarritako batzordeari. Epe hori igarota ez-betetzeak irauten badu, jakinarazpena egin zuen aldeak beste alde sinatzaileari jakinaraziko dio hitzarmena suntsiarazteko kausa dagoela, eta hitzarmena suntsitutzat emango da.

Hamabigarrena. Aldaketa.

Hitzarmen hau aldeek adostasunez aldatu ahal izango da, haietako edozeinek proposaturik, hitzarmenaren indarraldiaren barruan formalizatutako aldaketa-gehirria izenpetuz.

Hamahirugarrena. Hitzarmena suntsiarazteko araubidea.

Hitzarmen hau, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, haren xede diren jarduketak bete direlako edo kontratua suntsiarazteko kausa dagoelako azkenduko da.

Hitzarmen hau suntsiarazteko kausak izango dira:

- a) Indarraldia igaro izana.
- b) Sinatzaile guztien aho bateko adostasuna.
- c) Sinatzailearen batek bere gain hartutako konpromiso eta betebeharrak ez betetzea.
- d) Hitzarmena deuseza dela adierazten duen erabaki judiziala.
- e) Aurretik aipatutakoen artean ez dagoen eta hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusten den edozein kausarengatik.

Hitzarmenean bertan edo legeetan aurreikusten den edozein kausarengatik hitzarmena suntsiarazten bada, Jarraipen Batzordeak epea finkatuko du hitzarmen honen ondorioz gauzatzen ari diren jarduketak amaitzeko. Epe hori luzaezina izango da.

Hamalagarrena. Aplikatzeko diren araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Hitzarmen hau administrazio hitzarmena da eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.etik 53.era arteko artikuluek arautuko dute.

Hitzarmen honen interpretazioaz eta exekuzioaz eztabaidak sortu eta Jarraipen, Zaintza eta Kontrol Batzordeak ebatzi ezin izan baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

Ados daudela adierazteko, bi aldeek hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

ARABAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN,
FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO
FORU DIPUTATUA

Sin. Itziar Gonzalo de Zuazo

ESTADÍSTIKA INSTITUTU
NAZIONALAREN LEHENDAKARIA

Sin. Juan Manuel Rodríguez Poo

I. ERANSKINA

Arabako Foru Ogasunerako deskargen erregistro diseinua

EREMUA	DESKRIBAPENA	ATR.	LUZERA		
CPRO *	Bizileku probintziaren kodea	N(2)	2	1-2 pos.	
CMUN *	Bizileku udalerraren kodea	N(3)	3	3-5 pos.	
NOMB	Izena	A(20)	20	6-25 pos.	
PART1	Lehenengo abizenaren partikula	A(6)	6	26-31 pos.	
APE1	Lehenengo abizena	A(25)	25	32-56 pos.	
PART2	Bigarren abizenaren partikula	A(6)	6	57-62 pos.	
APE2	Bigarren abizena	A(25)	25	63-87 pos.	
CPRON	Jaiotze probintziaren kodea	N(2)	2	88-89 pos.	
CMUNN	Jaiotze udalerraren kodea	N(3)	3	90-92 pos.	
FNAC	Jaioteguna	N(8)	8	93-100 pos.	
TIDEN	Identifikatzaile mota	N(1)	1	101 pos.	
LEXTR	Atzerritarren agiriko letra	A(1)	1	102 pos.	
IDEN	Identifikatzailea	N(8)	8	103-110 pos.	
LIDEN	Identifikatzailearen kontrol kodea	A(1)	1	111 pos.	
NDOCU	Agiri zenbakia	A(20)	20	112-131 pos.	
NIA	Udalaren identifikazio zenbakia	A(15)	15	132-146 pos.	ZURITUA
NIE	Hauteskunde identifikazioko zenbakia	N(11)	11	147-157 pos.	ZURITUA
				158 pos.	ZURITUA
				159-160 pos.	ZURITUA
FVAR	Aldaketa data	N(8)	8	161-168 pos.	
CVAR	Aldaketa kodea	A(1)	1	169 pos.	
CAUV	Aldaketaren arrazoia	A(2)	2	170-171 pos.	
DIST	Barrutia	N(2)	2	172-173 pos.	
SECC	Atala	N(3)	3	174-176 pos.	
LSECC	Atalaren letra	A(1)	1	177 pos.	
CUN	Populazio unitatearen kodea	N(7)	7	178-184 pos.	
NENTCOC	Izen laburra	A(25)	25	185-209 pos.	
NENTSIC	Izen laburra	A(25)	25	210-234 pos.	
NNUCLEC	Izen laburra	A(25)	25	235-259 pos.	
CVIA	Bide kodea	N(5)	5	260-264 pos.	
TVIA	Bide mota	A(5)	5	265-269 pos.	
NVIAC	Izen laburra	A(25)	25	270-294 pos.	
CPSVIA	Sasi-bide kodea	N(5)	5	295-299 pos.	
DPSVIA	Sasi-bide izena	A(50)	50	300-349 pos.	
TINUM	Zenbakitze mota	N(1)	1	350 pos.	
NUMER	Zenbakia	N(4)	4	351-354 pos.	
CNUMER	NUMER kalifikatzailea	A(1)	1	355 pos.	
NUMERS	Zenbakia (goikoa)	N(4)	4	356-359 pos.	
CNUMERS	NUMERS kalifikatzailea (goikoa)	A(1)	1	360 pos.	
KMT	Kilometroa	N(3)	3	361-363 pos.	
HMT	Hektometroa	N(1)	1	364 pos.	
BLOQ	Etxadia	A(2)	2	365-366 pos.	
PORT	Ataria	A(2)	2	367-368 pos.	
ESCA	Eskailera	A(2)	2	369-370 pos.	
PLAN	Solairua	A(3)	3	371-373 pos.	
PUER	Atea	A(4)	4	374-377 pos.	
TLOC	Lokal mota	A(1)	1	378 pos.	
NIA	Udalaren identifikazio zenbakia	A(15)	15	379-393 pos.	ZURITUA

EREMUA	DESKRIBAPENA	ATR.	LUZERA		
NHOP	Errollda orriaren zenbakia	A(10)	10	394-403 pos.	
NIE	Hauteskunde identifikazioko zk.	N(11)	11	404-414 pos.	ZURITUA
NOMB	Biztanlearen izena	A(20)	20	415-434 pos.	
PART1	Lehenengo abizenaren partikula	A(6)	6	435-440 pos.	
APE1	Lehenengo abizena	A(25)	25	441-465 pos.	
PART2	Bigarren abizenaren partikula	A(6)	6	466-471 pos.	
APE2	Bigarren abizena	A(25)	25	472-496 pos.	
SEXO	Sexua	N(1)	1	497 pos.	
CPRON	Jaiotze probintziaren kodea	N(2)	2	498-499 pos.	
CMUNN	Jaiotze udalerriaren kodea	N(3)	3	500-502 pos.	
FNAC	Jaioteguna	N(8)	8	503-510 pos.	
TIDEN	Identifikatzaile mota	N(1)	1	511 pos.	
LEXTR	Atzerritarren agiriko letra	A(1)	1	512 pos.	
IDEN	Identifikatzailea	N(8)	8	513-520 pos.	
LIDEN	Identifikatzailearen kontrol kodea	A(1)	1	521 pos.	
NDOCU	Agiri zenbakia	A(20)	20	522-541 pos.	
CNES	Ikasketa mailaren kodea	N(2)	2	542-543 pos.	ZURITUA
NACI	Nazionalitate kodea	N(3)	3	544-546 pos.	
CODIGO POSTAL				547-551 pos.	